



**Senperen, 2024ko irailaren 21a**

Agintari eta hautetsiok, gonbidatu guztiok, ikastolakide agurgarriok, egun on guztioi.

Ikasturteari ekin berri diogu, ilusioz, baikortasunez eta indarberrituta ekin ere, iragan ikasturteik hona gure gizartearen testuinguruan aldaketa esanguratsurik gertatu ez diren arren, ikastolen mugimenduan hurrengo urteei begira gure buruari jarri dizkiogun helburuak lortzeko iparra zehaztuta dugulako, kohesionatuta gaudelako eta ekin diogulako biharko ikastolak diseinatzeari, biharko Euskal Herria eraikitzezko.

Ekainaren 22an, Iruñean, ikastola mugimendua osatzen dugun ikastolok egin genuen Zazpigarren Batzarrak eta bertan hartutako erabakiek markatuko dute gure ibilbidea hurrengo bost urteetan. Iparra markatuta dugu, badakigu zer egin behar dugun eta hori dena gauzatzeko ibilbidea marrazten hasiak gara.

Herri projektua gara, herritarra eta herrikoia. Euskaraz biziko garen herri euskalduna ari gara eraikitzen, eta herri horretan eragile izango diren pertsonak ari gara hezten. Nazio mailako hezkuntza erakunde gara, bakarra, hezkuntza eredu propria duena, Euskal Herri osoan murgiltze eredua eskaintzen duen bakarra, eta hezkuntza sistema propria osatzeko eskubidea aldarrikatzen dugu. Nazio projektua gara. Auzolana, elkarlana eta elkartasuna oinarri dituen hezkuntza mugimendu kooperatiboa da gurea, hezkuntza, hizkuntza eta kultur eragileei irekia eta haietan elkarlanean diharduena.

Euskara biziberritzeko sortu ginen, murgiltze ereduaren bitartez kalitatezko hezkuntza eskaintza izan da gure egitekoa, mandatu hori dugu, eta horretan jarraituko dugu, eredu pedagogikoan sakonduz, material berriak ekoitziz, irakasleen prestakuntzan eraginez, gure herriko hezkuntza sisteman beharrezko ezezik ezinbesteko garelako. Ikastola berriak sortuko ditugu, gela berriak ireki... eta ez ditugu itxiko. Horren lekuko da

Kattalin Elizalde kolegio hau, gure 114. Ikastola. Haziz doan mugimendua, inori atea ixten ez dizkiona; aitzitik, atea zabal zabalik dituena.

Ikasturte berria hasi dugun honetan, gure mugimendua indartu eta sendotzeko urrats gehiago egin behar ditugu.

Arestian aipatutako Zazpigarren Batzarrak mandatu bat eman digu, eta ibilbidea zehazteko hurrengo bost urteetarako plan estrategikoa diseinatzeari ekin diogu. Ikasturterako egitekoa baino, urte honetan egitekoa dugu berau, udazken amaierarako egina egotea aurreikusi baitugu.

Hauek dira egiten ari garen lan horrek barnebiltzen dituen lan lerro aipagarri batzuk

Hezkuntza proiektuari dagokionean, iaz aurkeztu eta ikastoletan lantzen aritu garen Ikastolen Hezkuntza Marko Orokorra ikasgeletara eramateko xedea dugu aurtengo ikasturtean. Ikasleak subjektu aktibo gisa erdigunean jarriko dituen hezkuntza eredu garatuko dugu eta metodologia eta hezkuntza hautu berrituen aldeko apustua egin.

Digitalizazioaren atalean bi atalei helduko diegu: alde batetik, burujabetza teknologikorantz egingo dugu eta, bestetik, ahaldunten digitala dugu helburu, eta horretarako, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak hezkuntzaren funtzió soziala indartuko den unean (zein etapa, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren zein zatitan) eta moduan (zein intentsitatetan, zein tresnekin) digitalizatzea.

Bestalde, eta asko kezkatzen gaituen gaia denez, helburutzat dugu gure ikasleen euskara mailan, euskararen erabilera eta euskal kulturaren ezagutzan eragitea. Horretarako, Euskararen eta euskal kulturaren transmisioa ardatz izango duen estrategia ideologiko-pedagogikoa garatuko dugu.

Ikastoletako eta Ikastolen Elkarteo profesionalei, ikasleei eta komunitateko kideei soziolinguistikako formazioa emango diegu euskararekiko eta euskal kulturarekiko atxikimendua indartzeko. Gure profesionalen euskara maila punta puntakoa izatea nahi dugu eta horretarako ere baliabideak martxan jarriko ditugu.

Epe laburrean ere, ikastoletako ikasleek beraien ibilbide akademikoan zehar lortu beharreko euskara gaitasuna eta euskal kulturaren ezagutza finkatuko ditugu eta ebaluatu egingo dugu.

Eta nola ez, euskararen ofizialtasuna eta normalizazioa, euskal kulturaren transmisioa eta euskaldunen hizkuntz eskubideak bermatuko dituzten legeak eta politikak era aktiboan aldarrikatzen jarraituko dugu.

Euskal Herrian bizi diren familia guzientzat, eta hala nahi duten guzientzat, baina bereziki egoera zaugarrian daudenentzat ikastolak aukera erreal bat izatea ere helburutzat dugu. Ikastolak aukera erreal bat izatea, ezagutzen dugulako elkar; aukera erreal bat izatea, ez dagoelako eragozpen ekonomikorik gurera etortzeko; eta aukera erreal bat izatea ikasle horiek euskaldundu nahi dutelako eta guk hori bermatzen diegulako. Horretarako ikastola guzietan barne beka sistema edota kuota progresiboa ezartzeko bidea abiatuko dugu.

Erakunde gisa, nazio izaerari bultzada bat eman nahi diogu, egitasmo berriak martxan jarriz, nazio ikuspegi hori uztartuta. Lortu dugu Zazpigarren Batzarraren prozesuan ikastola guztiak inplikatzea; orain dagokigu hilabeteotan sentitu dugun kohesioa eta elkarrekin arraun egiteko ilusioa artikulatzea. Eginkizun dugu beraz, lanerako espazio eta erabakigune nazional berriak sortzea.

Ikastola eredua ere indartzera goaz. Badakigu zeintzuk diren gure ereduaren oinarriak. Oinarri horiek gaurkotu eta indartu behar ditugu, eta, behar izanez gero, beste balio batzuk erantsiko dizkiegu gure oinarriei, gure komunitateak eskatu digun bezala.

Hezkuntza proiektu herrikoi eta komunitarioaren bidean instituzio desberdinak bultzatzen dituzten ekimenetan parte hartuko dugu, gure balioak ahalik eta gehien zabal daitezen eta herri eragile eta hezkuntza eragileen arteko harremanak sendotu daitezen.

Helburuok lortzea, jakin badakigu, erronka handia da. Eta aipatu ditugun horietako gehienak ezin ditugu ikastolok bakarrik egin. Herri erronkak direnez, herri bezala erantzun behar diegu. Herritik jaio ginen eta herriari zor gatzaizkio. Horregatik, elkarlana behar dugu garatu, aliantzak indartu eta berriak egin gainerako hezkuntza eragileekin, euskalgintzarekin eta kulturgintzarekin.

Iruñean amaitu den prozesu batetik gatoz; konpromisoak eta erabakiak hartu genituen. Datozen urteetako egiteko eta erronka nagusiak ditugu. Badugu zer egina. Biharko ikastolak biharko Euskal Herria eraikitzeo. Oinak Iurrean dituzten ameslariak gara. Ametsak errealtitate egin dituzten ameslariak gara. Eta amesten jarraitzen dugu, gaurko ametsak biharko errealtitate izan daitezen. Herri hau eraikitzen jarraitu behar dugu hezkuntzatik eta euskaratik.

Mila esker denoi ikasturte hasiera hau gurekin partekatzeagatik.

Autoridades y cargos electos, invitados, respetables compañeros de ikastolas, buenos días a todos.

Acabamos de comenzar el curso con ilusión, optimismo y fuerza renovada, porque, aunque desde el pasado curso no se han producido cambios significativos en el contexto de nuestra sociedad, en el movimiento de las ikastolas hemos definido el norte para alcanzar los objetivos que nos hemos marcado de cara a los próximos años, estamos cohesionados y nos hemos lanzado al diseño de las ikastolas del mañana para construir la Euskal Herria del futuro.

El 22 de junio, en Iruña, las ikastolas que formamos este movimiento finalizamos la Séptima Asamblea y las decisiones que allí tomamos marcarán nuestra trayectoria durante los próximos cinco años. Tenemos fijado el norte, sabemos lo que tenemos que hacer y estamos empezando a trazar el recorrido para llevar a cabo todo lo decidido.

Somos un proyecto de país, social y popular. Estamos construyendo un país euskaldún en el que viviremos en euskera, y estamos educando a personas que van a ser agentes de este país. Somos una institución educativa de ámbito nacional, única, con un modelo educativo propio, que ofrece un modelo de inmersión en toda Euskal Herria, y reivindicamos el derecho a conformar un sistema educativo propio. Somos un proyecto de nación. El nuestro es un movimiento educativo cooperativo, abierto y colaborativo; trabajamos junto con otros agentes educativos, lingüísticos y culturales.

Nacimos para revitalizar el euskera, nuestra misión ha sido ofrecer una educación de calidad a través del modelo de inmersión, tenemos ese mandato, y lo seguiremos haciendo, profundizando en el modelo pedagógico, creando nuevos materiales, incidiendo en la formación del profesorado, ya que además de necesarios somos imprescindibles en el sistema educativo de nuestro país. Crearemos nuevas ikastolas, abriremos nuevas aulas... y no las cerraremos. Así lo atestigua este colegio Kattalin Elizalde, nuestra 114<sup>a</sup> Ikastola. Un movimiento que va creciendo y que no cierra las puertas a nadie, sino que las tiene abiertas ampliamente.

Ahora que hemos empezado el nuevo curso, tenemos que dar más pasos para fortalecer y consolidar nuestro movimiento.

La Séptima Asamblea antes citada nos ha dado un mandato, y para definir el recorrido hemos comenzado a diseñar el plan estratégico para los próximos cinco años. Un hito

marcado no ya para este curso escolar, sino para este año, ya que tenemos previsto que esté finalizado para finales de otoño.

Junto a ello, en este curso tenemos el objetivo de trasladar a las aulas el Marco General de Educación de las ikastolas que hemos presentado y que lo hemos estado trabajando en las ikastolas durante el pasado curso.

Por otro lado, y dado que es un tema prioritario y crucial para nuestro movimiento, tenemos como objetivo incidir durante este curso en el nivel de euskera de nuestros alumnos, en el uso del euskera y en el conocimiento de la cultura vasca.

También tenemos como objetivo que la ikastola sea una oportunidad real para todas las familias que viven en Euskal Herria, y para todas aquellas que así lo deseen, pero especialmente para las que se encuentran en una situación de vulnerabilidad. Queremos y trabajaremos para que la ikastola sea una opción real, porque nos conocemos; que sea una opción real, porque no hay impedimento económico para acudir a nosotros; y que sea una opción real, porque esos alumnos quieren euskaldunizarse y nosotros les garantizamos que así sea.

Como organización, queremos dar un impulso al carácter nacional, poniendo en marcha nuevos proyectos, combinando esta visión nacional. Hemos conseguido implicar a todas las ikastolas durante el proceso de la Séptima Asamblea; ahora nos toca articular la cohesión y la ilusión de remar todos juntos que hemos percibido durante estos meses.

También vamos a reforzar el modelo de ikastola. Sabemos cuáles son las bases de nuestro modelo. Debemos actualizar y reforzar estas bases y, en caso necesario, añadiremos otros valores en nuestras bases, tal y como nos ha pedido nuestra comunidad.

Conseguir estos objetivos, somos conscientes, es todo un reto. Y algunos de los que hemos mencionado no los podremos llevar a cabo en solitario. Son retos de país, y debemos responderles como tal. Nacimos del pueblo y nos debemos a él. Por eso necesitamos trabajar conjuntamente, fortalecer alianzas y crear nuevas con el resto de agentes educativos, con el mundo del euskera y la cultura.

Venimos de un proceso que finalizó en Iruña; adquirimos compromisos y tomamos decisiones. Tenemos fijados las principales tareas y retos de los próximos años. Tenemos fijados objetivos de gran calado. Las ikastolas del mañana para construir la Euskal Herria del futuro. Somos soñadores, con los pies en el suelo. Somos soñadores



que han hecho realidad muchos de sus sueños. Y seguimos soñando, para que los sueños de hoy sean la realidad de mañana. Tenemos que seguir construyendo este país desde la educación y el euskera.

Autoridades y cargos electos, invitados, compañeros de ikastola, ¡Eskerrik asko!

